

ARGAZKIGINTZA. 'Pasaporte baterako argazkiak' erakusketa zabalik da Donostiako La Roca argazki galerian

Xabier Ubeda, pasaportea betetzeko argazki egokiaren bila

«Fotomatoiaren operadore» moduan ikusten du bere burua argazkilari gazteak

Olaia Salegi | **DONOSTIA**

Xabier Ubeda argazkilariak erakusketa dauka Donostiako La Roca aretoan: *Pasaporte baterako argazkiak*. Erakusketa uztailaren 13an inauguratu zen, eta abuztuaren 14a bitartean bisitatu ahal da. Bilduma honek azken sei urteotan Xabier Ubedak argazkigintzan egindako lana laburbiltzen du. Fotomatoiak erabiltzen ditu argazkiak egiteko, ideia simple batetik abiatuz: «Etiketarik ispilua eraman, fotomatoiaren barruan jarri angelu ireki batekin, eta gortinak zabalik daudela txanponak sartzen ditut. Hala, makinaren aurrean dagoen espazioaren erregistroa egin ahal izaten dut».

Muga berriak

Argazkiak ateratzeko modu bitxia izateaz gain, pentsa litekeena baino muga gehiago dauzka Ubedaren jardunbideak: argazki kamera fotomatoia bera da,

argazkia hura dagoen lekuan baino ezin egin daiteke; enkoardatze aldetik, berriz, fotomatoiaren gelatxoaren atearen muga dago; eta, azkenik, argazkia egiteko mementoa: azken txanpona sartu eta argazkia atera bitartean edozer gerta daiteke, argazkilaria bera ere harritzeko modukoa.

Gauzak horrela, Ubedak hasieran espero zitzakeen auto zein eraikinez gain, zerua edota trenak ere topatu ditu bere argazki serieetan. Bestalde, lan honek badu interakzio puntu bat, Ubedak dioenez: «Fotomatoiaren ispilua ipintzen dudanean aurretik pasatzen den jendeak zerbaitek arraroa egiten ikusten nau, eta hor nolabaiteko komunikazioa sortzen da gure artean».

Pasaporte baterako argazkiak erakusketak hamar serie biltzen ditu; sei urteotan atera dituen ehunka argazkien erakusgarritxiki bat baino ez, beraz. Serie



GARI GARAIALDE

Xabier Ubeda La Roca galerian erakusten ari den hamar argazki serieetako bat.

hauek, gainera, denboraren joana erakusten dute. Ubedak azaltzen duenez, denboraren ideiarekin lotutako narrazioak dira eskuarki: fotomatoi jakin batean ispilua kokatu eta hura lekuz aldatu gabe, ispilua ematen didan irudi hori epealdi mugatuan sistematikoki erregistratuz, esaterako».

Ezer gutxi argazkilariaren esku

Fotomatoiaren operadoreztzat definitzen du bere burua Ubedak, makinak inposatzen dizkion mugak errespetatzea beste irtenbiderik ez baitauka. Horrela, bere argazkiek ez dute elementu aniztasun izugarririk jasoko, baina hori ez da edukia-

ren balio adierazkorra neurtzeko baremo bakarra. Horixe bera egiaztatuko du erakusketa aretora joaten denak.

Biziki erakartzen du Ubeda fotomatoiaren erregistro ahalmenak, eta, hori horrela izanik, ez dauka lan hau uzteko asmorik. Ez epe laburrean behintzat. Hego Euskal Herriko fotomatoiak pasatu baditu ere —Madrilgo zenbait, halaber—, «denborarekin makina berriak jartzen dituzte, zaharrak kentzen dituzte eta abar». Gisa honetara, beti dago argazki berri eta desberdinak non atera.

Fotomatoi berriak probatzen jarraitu nahi du Ubedak, eta, inguruetako makina gehienak

jada pasatuak dituenek, bilaketa eremua zabaltzeko beharko duela pentsatzen du. «Lana bidaia bihurtu zait. Horrela, makinak hauek dauden tokietara joango naiz nire obsesioa nolabait asetzeko». Esanak esan, lan honekin denbora gehiegi emateak ez dauka zentzurik egilearen ustez, baldin eta testuinguru horri egokitzeko ideia berririk ez badago. Horrek adieraziko omen dio noiz utzi behar dion fotomatoiarekin lan egiteari.

Bitartean, bere buruari jarritako erronkari eutsiko dio tolosarrak: ahalik eta fotomatoi gehien probatu. Bitxiak dira bere argazki serieak.



THOR CASTRO / EFE

Gasteizko Jazzaldiaren zilarrezko ezteiak bukatu dira

Atzo bukatu zen Gasteizko Jazzaldia, astebetez jazz-zaleei egitarau biribila eskaini eta gero. Herenegun, esaterako, Wayne Shorter saxofoi jolea (goian) eta Marcus Miller baxu jolea (alboan) aritu ziren. Festibalaren zilarrezko ezteiak bukatzeko,

Chick Corea, Paco de Lucia, Cyrus Chesnut trio eta Peter Bernstein, Larry Goldings & Bill Stewart aritu ziren atzo. Jazz egarria asetzeko aukerak ez dira amaitu, ordea, etzi jarriko baita abian Donostiako Jazzaldia, gaur zortzi amaitzeko.



EGUNKARIA